

Herritarrek parte hartzeko prozesua

Herritarrek parte hartzeko 2. saioa

AKTAK
PC_Nº01
[2013/02/27]
[19:00-21:00]
[ERAKUSKETA ARETOA - OLASO JAUREGIA]

BLOKEA/FASEA	
BERTARATUAK	ANDONI GARAIZAR, AITZOL BATIZ, GURUTZE URIARTE eta 22 pertsona gehiago (GONBIDATURIKO KULTUR AGENTEAK ETA HERRITARRAK)
BERTARATU EZ DIRENAK:	
GAI-ZERRENDAA	Sarrera 1 lan-dinamika: <ul style="list-style-type: none"> • Harreman erduei buruzko lan-dinamika

Gai-zerrendako gaiak:

10'

EZTABAIDA	Sarrera	
	19:00 – 19:10 – 10 minutu itxaron dira adeitasunez. Herritar batzuk mezu elektronikoak bidali dituzte baina Kultibak ez ditu jaso. Haiei ez zaie agertzen errorerik gerta denik. 19:10.- Bileran hastean galdetu da ea zein hizkuntzatan burutu nahi duten dinamika eta gaztelania aukeratu da. Bileraren oinarritzko araua, zentzu komunekoa gogoratu da: errespetua. Kultibakoek gaur landuko den dinamika azaldu dute: bertaraturiko bakoitzak Trapagarango udalarekin eta herriko gainerako kultur agenteekin izango duen harreman-eredua.	
ONDORIOAK		
EKINTZA PLANAK	ARDURADUNA	EPEA

55'

EZTABAIDA	<ul style="list-style-type: none"> • Lan -dinamika harreman erduei buruz
	19:20 Bertaratuaren artean 5 talde egin dira Kultibak proposaturiko dinamikaren bi ariketa lantzeko, hau da, Trapagarango kultur agente desberdinen arteko harreman-maila nolakoa den zehazteko. Lehen ariketarako 10 minutu eman dira. 19.35. Lehen ariketa egin ondoren, bigarrenarekin jarraitzen dugu. Identifikaturiko harremanen ezagutzan sakontzeko ariketa da eta haiei buruzko galdera batzuk erantzun behar dira. 40 minutu ematen zaizkie. 20.25. Sozializazioa hasi da. Dinamikaren ondorioekin hasi baino lehen, bertaraturiko batek azaldu du elkarte batzuek lokalak dituztela anbulatorio zaharrean, baina ez dituztela erabiltzen. Lokal gutxi daude. Elkarte batzuk ez daukate lokalik eta beste batzuk, lokalak edukita, ez dituzte erabiltzen. Udalari lokalak gehiago kontrolatzeko eskatu zaio. Minutu batzuk eztabaidatu da ekipamenduez, haiek erabiltzeko moduaz, lokalei dagokienean elkarrekin dituzten erantzunkizunaz, baina esan da gai zehatz honi herritarrek parte hartzeko beste saio bat eskainiko zaiola, ekipamenduekin lotutako gaiak azaltzeko. Berriz ekin zaio bilerari proposaturiko dinamikaz eta bertaraturik esan dute zaila gertatu zaiela dinamika burutzea. Elkarrekin adierazi dute Udalarekiko harremana desordenatua dela, bilera asko egiten direla, maizegi. Herritarrei informazioa berandu heltzen zaie, argi-kartela zaila da irakurtzen, postontzietatik banatzen dena berandu heltzen da askotan, adibidez, ikastaroak hasi eta gero. .. informazioa epeak amaitu eta gero ailegatzen da sarritan, udalaren web orria ez da eguneratzen eta ez da batera irisgarria, zaila da aurkitzen bila zabiltzana... Auzoetara ez da informazioa heltzen, hirigunera batzuetan berandu heltzen bada, auzoetara heldu ere ez da egiten. Herritarretako batek, informazioa heltzen ez den ildotik esan du herriko gazteek ez direla ezertaz jabetzen. Ez dute udalak antolatzen dituen jardueren berririk izaten. Oro har Udalaren informazioa paperean zabalitzen da eta oraingo gazteek iaz ez dute paperik erabiltzen, sare sozialekin lotuago daude, eta hor ez dute aurkitu ere egiten udalak antolatzen duena. Euskararekiko tratua eskasa da, ez da baldintza berdinetan tratatzen. Parentesi honen ondoren dinamikari berriko ekiten saiatu dira. Kultibakoek zenbait galdera egin dituzte - Nolakoak dira elkarten arteko harremanak?

Gehiengoaren erantzun da txarrak direla edo ez dagoela harremanik. Ez dago batasunik elkarteen artean. Kirol elkarte txikien artean badago batasuna eta adiskidetasuna. Elkarte txikiak bat egiten dute kirol jardueretarako, kirol elkarte handiak, ordea, ez dute parte hartzen.

-Jardueren erabiltzaile gisa, interesagarria iruditzen zaizue informazioa zentralizatzea?
 Beharrezkoa da.

Antzematen da Udalak ez dakiela elkarteek zer egiten duten, ez dago komunikaziorik ez informaziorik. Elkarteek eta kultur agenteek elkarren berri izateko eskatu dute.

Antzeko jarduerak egiten dituzten elkarteek prest egongo lirateke elkartzera herrian ekitaldiak antolatzeke, udalak horretarako kanpoko enpresak kontratatu behar gabe.

Elkarteak jarduerak antolatzeke diru-laguntza jasotzen dute baina bertaratuen artean nolabaiteko haserrea antzematen da diru-laguntza batzuren zenbatekoagatik. Zenbait parametro proposatu dira laguntzak esleitzeko, hala nola, bazkide kopurua, herrian duen eragina, eta abar. Azkenean ez da parametro bat ere adostu.

21.10 ean amaitutzat eman da bilera.

EKINTZA PLANAK	ARDURADUNA	EPEA

ERANTSITAKO AGIRIAK:	
HARREMANETARAKO PERTSONAK	
OHAR BEREZIAK	